Elorrioko udala

Gaia: LIZITAZIOA, BELAUNALDIENARTEKO PROGRAMA ESLEITZEKO
Hasiera-eguna: 2021eko iraila

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA
BELAUNALDIENARTEKO PROGRAMAREN ZERBITZUA ESLEITZEKO

1. XEDEA

Egitarauaren xedea da Elorrioko gazteen eta adinekoen arteko harremanak berrindartzea. Belaunaldi bakoitzeko kideek, urteetan jasotako esperientzian eta ezagutzan oinarrituta, hezkuntza egitarau dinamiko baten barruan modu atsegingarrian eta positiboan informazioa trukatuko dute.

Zerbitzuak garatuko dituen jarduera guztietan, oinarrizko printzipioak izango dira honako zeharkako lerro hauek: euskara, genero ikuspegia eta inklusioa-integrazioa.

2. TITULUA. KONTRATUARI BURUZ, OROKORREAN

Kontratua egikaritzea eta zerbitzuaren planifikazioa antolaketa- eta kudeaketa-zereginen barruan sartzen da, eta baldintza-agiri honek aurreikusten duena jarraituz garatuko dira, gizarte politikak kudeatzen dituen batzordearen zuzendaritzapean. Zerbitzua ez da eraikin jakin batean edo ekipamendua duen leku batean eskainiko, baizik eta programatutako edo diseinatutako jarduerek eskatzen dituzten lekuetan.

2.1. Zerbitzuaren ezaugarriak

- (BELAUNALDIENARTEKO) zerbitzu publiko bat da eta adin-tarte jakin baten barruan sartzen diren pertsonei zuzenduta dago, gazteak, zein nagusiak.
- Zerbitzu hau eskaintzerakoan harremanak sortzea eta esperientziak trukatzea ahalbidetzea bilatuko da, taldea osatuko duten kideen arteko parte-hartze aktiboa sustatuz eta garatu behar den programa oinarri hartuta.
- Zerbitzua programan aurreikusitako lekuetan eskainiko da.
- Zerbitzua tresna integratzaile eta hezitzaile bat da, parte-hartzean eta trukean oinarrituta.

2.2. Zerbitzuaren xede diren pertsonak

BELAUNALDIENARTEKO zerbitzu hau zuzenduta dago DBHko 3. mailako ikasleei (170 inguru) eta “La Esperanza”, “Berriotxoa”, “Bizidun” edo “Elorrilore” elkarte-kideei (30 inguru). Ez dugu ahaztuko zerbitzua baita eskuragarri egongo dela aurreko edizioetan parte hartu duten gazteentzat, komenigarria delako bertan jarraitzea, nahiz eta DBhko 4. mailan egon. Gaztegunea kudeatzen duen enpresarekin koordinatu egin beharko da, eta ahal dela, aisi libreko taldeekin.

Ezarritako helburuekin jarraituz eta eskainitako egitarauarekin, zerbitzuaren hartzaileek egokia eta eraginkorra den zerbitzu bat izateko eskubidea dute.

Zerbitzuaren xedearen arabera, zerbitzuaren hartzaileek obligazioa dute eskura jarriko zaien ekipamendua eta

materiala erabiltzeko eta errespetatzeko.

2.3. Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen kontratazioaren helburu nagusia gazteriaren eta adinekoen artean batasun eta kohesio soziala lortzea da, ezabatuz, ahal bada, belaunaldi ezberdinen arteko konexioa eta hartuemona eragozten dituzten oztopoak. Horretarako, ezartzen diren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Hezkuntza baloreak sustatzea: errespetua, elkarbizitza, elkartasuna, berdintasuna eta aniztasuna.
- Esperientziak partekatzea eta espazioak sortzea alkarrekin lankidetzan aritzeko.
- Esperientzia positiboak partekatzeko guneak eta uneak sortzea.
- Adinekoen errekonozimendua bultzatzea, bereziki adinekoen emakumeena, hauen garrantzia onartuz eta izan duten paper soziala nabarmenduz.

Beste helburu batzuk ere bilatuko dira:

- Belaunaldien arteko ikaskuntza-trukea, beste gauza batzuen artean, gaitasunak eta trebetasunak garatzea, bizi-esperientzia, tokiko kultur ondarearen transmisioa.
- Belaunaldien artean ahozko gaitasuna partekatzea.
- Etorkinen parte-hartzea eta integrazioa sustatzea.

2.4. Zerbitzuaren iraupena:

- Zerbitzua bi ikasturtetan zehar garatuko da:
  - 2021eko urriaren 1etik 2022ko ekainaren 15era arte.
  - 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 15era arte.
- Ikasturte bakoitza fase ezberdinetan garatuko da:
  - Koordinazioa: iraila eta ekaina.
  - Planifikazioa: iraila eta urria artean.
  - Balorazio-txostena: abendua eta ekaina.

2.5. Zerbitzuaren xedea

- Lehenago aipatutako ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzuaren xedea da DBHko 3. mailako ikasleen eta adinekoen (BELAUNALDIENARTEKO)arteko programaren diseinua egitea eta egikaritzea.
- Programa garatzeko aurkeztuko diren eskaintzak jarduerak eta denboraldia zehaztu beharko dute, jarduera bakoitza zehaztasun guztiekin azaldu eta programa egikaritzeko behar izango diren orduen gaineko aurreikuspena egitea, hala nola partehartzaileen ezaugarriak.
- Elorrioko Udalak Politika Sozialen Informazio Batzordearen bidez proiektuaren edukietan aldaketak eta iradokizunak egin ahal izango ditu.

3. Titulua: PROIEKTUAREN BARNE KUDEAKETARI BURUZ

Proiektuaren kudeaketaren ardura izango duen enpresak edo pertsonak Udalak jarritako helburuak lortzera bideratuko du proiektua. Proiektuaren teknikari arduraduna Elorrioko Udaleko kiroletako eta gazteriaren teknikaria izango da.
Enpresa esleipendunak Udalak ezarritako arauak eta ildoak beteko ditu. Ildoak jaso eta zehazten dira hirugarren atal honetako jarraiko puntuetan.

Zerbitzuaren enpresa arduradunak, egitarua zuzen egikaritzeaz gain, aurreikusitako lana planifikatu, jakinarazi eta

ebaluatu beharko du, eta lana antolatzerakoan, gauzatzeko mementua aurreikusi beharko du.

3.1 Ebaluazioa

Ebaluazioak aurreikusiko du behar den guztia zerbitzuaren gaineko informazioa, ingurua eta prozesatzea lortzeko. Planifikazio egoki bat egiteko, informazio horren helburua da garatu behar diren jardueren ezagutza izatea, hala nola analisia eta balorazioa.

Zerbitzuaren ebaluazioa egiteko nahitaezkoa izango da erabiltzaileen partehartzea.

Ebaluazio-txostenean honako informazio hau agertu beharko da: parte-hartzaileen datu kuantitatiboei buruz, sexuaren, adinaren, jatorriaren eta programa honekin koherenteak diren beste ezaugarri batzuk bereizita, baliabide materialak. Datu kualitatiboak direla eta, partaideen asebetetze-maila, jarrera, estimazioa, zeharkako lerroen betetze-maila,… eta zerbitzua hobetzeko proposamenak.

Ebaluazioa egiteko mementuak honako hauek izango dira: hiruhilero eta urtero.

Hiruhilero ebaluazio-txostenak aurkeztuko dira, eta behin horiek baloratutakoan hurrengo hiruhilekoko planak aurkeztuko dira.

Urteko txostenak ikasturtea amaitu eta gero aurkeztuko dira.

3.2 Zeharkako lerroak

3.2.1.1 Euskara

BELAUNALDIENARTEKO zerbitzuan euskara izango da lehentasuna duen hizkuntza, zerbitzu-hizkuntza gisa (harremanetan, koordinaziorako, antolaketa,…) zerbitzuaren hartzaileekin izango den moduan, salbuespen batzuekin, adibidez euskara ulertzen ez duten adinekoekin tratuan. Horretarako bitarteko guztiak eskuragarri jarriko direla bermatuko da: hezitzaile elebidunak, materiala euskaraz, euskararen erabilerarako planifikazio,…

3.2.1.2 Berdintasuna

BELAUNALDIENARTEKO zerbitzua genero ikuspegia ezinbestekoa izango da: eskaintza interesgarria egingo da, bai neskentzat, bai mutilentzat; programen eta jardueren planifikazioa nesken presentzia sustatuko da, hala nola, partehartze aktiboa betetzea; zabaltze-elementuetan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dira.

3.2.1.3 Inklusioa-Integrazioa

Zerbitzuak kontuan hartu beharko du Elorrioko biztanleriaren artean dagoen aniztasuna, eta inklusioa eta integrazioa bilatu beharko ditu, horietan arreta berezia jarriz, hori behar izanez gero.

4 TITULUA: ZERBITZUARI ATXIKITAKO GIZA ETA MATERIAL BITARTEKOAK

4.1 Giza bitartekoak

Zerbitzua baldintza hoberenetan eskaintzeko, enpresak talde egoki bat eduki beharko du.

4.2 Pertsonalaren prestazio-baldintzak

Zerbitzua eskaintzen duen langilegoak honako prestazio-baldintza hauek bete beharko ditu:

- Erdi edo goi mailako titulazioa.
- Hezkuntzan prestakuntza.

Administrazioarekiko eta hirugarren pertsonekiko harremanetan, hizkuntza gaitasunarekin lotuta, kontratatutako enpresako langilegoak zerbitzua administrazioaren baldintza beretan bete beharko du; beraz, kontuan izanik hau zerbitzua dela, beharginek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila justifikatu behar dute.

4.3 Bitarteko materialak

Programatutako jarduerak modu egokian egiteko enpresa esleipendunak beharrezkoa den materiala edukiko du. Materiala enpresak berak erosi eta ordainduko du.

5 5. TITULUA: ZERBITZUAREN IKUSKAKETA

Enpresak betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko, Udalak kontratatutako zerbitzuarekin lotutako jarduerak ikuskatu ahal izango ditu. Era berean, programaren bilakaerari buruzko informazioa lortzeko, Udala enpresa esleipendunarekin harremanetan jarri ahal izango da behar den guztietan.

6. TITULUA. ESLEIPENDURAREN BETEBEHARREKOAK

Esleipendunak honako betebehar hauek bete beharko ditu:

1- Udalak eskatutako zerbitzua betetzea baldintza teknikoen agiri honetan jasotzen den moduan, eta desbideratu barik.

2- Pertsonalaren mendekotasun-harremanetik eratorritako kostu guztiak bere gain hartzea, baita erantzukizun guztiak ere, bai eragin ditzaketen gertakariengatik, bai aipatutako langileekiko lan-harremanengatik, inondik inora udal langileria izango ez dena.

3- Programatutako jarduerak egikaritzeko modu egokian egin ahal izateko behar duen materiala edukitzea, eta materiala erosiz gero, erositakoaren gastua bere gain hartzea.

4- Koordinazio iraunkorra izatea programaren sail arduradunarekin.

5- Ikasturte amaierako memoria, ikasturtea amaitzen den egunetik 45 egongo dira gehienez aurkezteko. Honetan, gutxienez jardueren memoria agertuko da idatziz eta irudiekin, partaideen asebetetze-maila eta helburuen betetze-maila. Memoria Informazio Batzordean aurkeztuko du enpresaren ordezkariak.

6- Politika Sozialen arloari jakinaraztea zerbitzuaren prestazioan sortzen den edozein intzidentzia edo inguruabar.

7- Kontratatutako pertsonalak zerbitzua behar moduan emoten duela jakiteko jarraipena eta kontrola egitea, egokiak diren bitartekoen bitartez.

8- Erakunde esleipendunak lan-arloan eta langileen laneko segurtasun- eta higiene-arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete beharko ditu, eta bere erantzukizuna izango da langileen lan-istripuei buruzko guztia.